



JON URBE / ARGAZKI PRESS

# «Euskal Herriaren bidea itunaren bidea izango da»

**Xabier Ezeizabarrena** • Gipuzkoako batzarkidea (EAJ) eta unibertsitate irakaslea

Ezeizabarrenak autodeterminazio eskubidea defendatzen du, baina bi aldeen arteko negoziatziotik abiatuta • Quebec eta Eskozia ikusten ditu eredutzat hartu beharreko adibidetzat

**Iosu Alberdi**

Xabier Ezeizabarrena (Madril, 1970) Gipuzkoako Bazar Nagusietako bigarren idazkaria da. EAJko politikaria da, eta zuzenbideko doktore: ingurumen zuzenbideko eta administrazio zuzenbideko espezialista. Duela gutxi, *Derecho de libre determinación y derecho a decidir: nueva soberanía y derechos humanos en el siglo XXI* (Autodeterminazio eskubidea eta erabakitze eskubidea: subiranotasun berria eta giza eskubideak XXI. mendean) liburua kaleratu du, irakasle den Deustuko Unibertsitatearekin batean.

**Liburuan, erabakitze eskubidea eta autodeterminazio eskubidea aipatzen dituzu. Zertan dira ezberdin?**

Azken urteetan joera politiko berri batzuk erabakitze eskubidea bermatzen ari dira, baina kontzeptu politiko gisa. Erabiltzarria da ideia berriak eta nortasun-

nari buruzko kontzeptuak zabalitzeko, baina nazioarteko zuzenbidean autodeterminazio eskubidea da tresna juridikoa. Hori dago indarrean, bere berme eta zailtasunekin, eta nik hori onartzen eta azpimarratzen dut tresna juridiko gisa.

**Autodeterminazio eskubideak interpretazio ezberdinak izan ditzake.**

Gai juridiko guztietan bezala. Nire ustez, gaindituta dago interpretazio klasikoa, autodeterminazio eskubidea koloniei askatasun eskubidea emateko bakarrik finkatuta dagoela dioena. Azken kasuek, batez ere, Quebec eta Eskozia-koak, erakusten dute hori. Koloniek bere garaian berme hori eduki zuten, baina egun eskubide hori herrialde guztiei irekia dago.

**Giza eskubideen errespetua eta printzipio demokratikoak autodeterminazio eskubidearen oinarrian behar dutela diozu.**

Hori gakoetako bat da. Komuni-

tate politiko batek autodeterminazio eskubidea bermatzea nahi badu, baina ez badu giza eskubideak babestea onartzen, horrelako autodeterminaziorik ez dut nahi, ez nire herriarentzat, ez beste inorentzat. Eskubide horiek edukien bidez defendatu behar dira. Europako Batasuneko testuinguruan gaudenok, hori bermatuta, zilegitasun guztia dugu aurrera eramateko.

**Hainbat estatutan, eskubide horiek prekaritate egoeran daudela diozu. Zein kasutan?**

Jurisprudentzia nahiko sendoak iritsi dira Europako Giza Eskubideen Auzitegitik Espainiarekiko. Hamar bat kasu oso garbi daude. Erresuma Batuak ere izan zituen bere garaian, eta Europan ere badaude adibide gehiago. Amerikako Estatu Batuetan, Donald Trump presidentek onartzen duen subiranotasun eredua ere giza eskubideen aurka doa.

**Subiranotasun kontzeptua be-**

**rriro interpretatu behar dela diozu. Aldatu egin al da?**

Bai. Gure herriari begira, baina baita beste herri batzuei ere. Egun, subiranotasunaren kontzeptua guztiz aldatuta dago. Ezin dugu aurreko mendeetan bezala hitz egin, subiranotasuna botere osoa dela esanez; estatu batek botere hori bere borondatea bermatzeko duela. Batez ere, Europako Batasunean aldatu da. Ia ez dago estatu subiranotasunik bere osotasunean. Adibidez, Erresuma Batuak, *brexit*-a bermatuta ere, Europako Batasunaren barnean edo kanpoan, subiranotasun mugatua izango du, giza eskubideen bidez, esaterako. Erresuma Batuak ez ditu hartuko horien inguruko erabakiak, nazioarteko auzitegiek baizik. Gaur egun, beraz, subiranotasun kontzeptua erabat aldatuta dago. Komenigarria da komunitate politiko batek autodeterminazio eskubidea bermatu nahi badu, hori baino lehen era-

bakitzea zein subiranotasun eredu nahi duen: Europako Batasunaren kanpoan edo barnean, subiranotasun mugatua edo Trump-ek defendatzen duen subiranotasuna. Kontzeptu berri eta ezberdinak daude egun.

**Beraz, subiranotasunak estatuetatik nazioarteko erakunde-  
etara egin du salto?**

Hori ere bai. Tentsio handia dago estatu eta nazioarteko erakundeen artean. Estatuak ez dute hori bermatu nahi, baina gure kasuan, ingurumen zuzenbidean eta politikan eta, batez ere, giza eskubideen alorrean, botere horiek Europako Batasunean eta hango auzitegietan daude. Beraz, azken hitza ez dago estatu mailan, Bruselan edo Strasburgon baizik.

**Liburuan, hiru kasu aztertzen dituzu: Quebec, Eskozia eta Katalunia. Lehen biak eta azkena ezberdintzen dituzu. Zergatik?**

Ezberdintasun nagusia estatuen jarrera da. Quebec eta Eskoziaren kasuetan Kanadatik eta Erresuma Batuak jarrera erakitzailea izan zuten. Bi nazio horiek bazirela onartu zuten, erreferendumerako prozesua onartu zuten, eta baita emaitza ere: emaitzaren arabera jorratu beharreko moldaketa juridikoak. Espainian ez da hori gertatzen. Estatuak beto egiten du, bai Euskal Herria, bai Kataluniara begira. Eskozian eta Quebecen akordioa lortzen saiatu ziren. Katalunian ere neurri batean bai, baina ez zen lortu.

**Estatuak ez ezik, Quebecek eta Eskoziak ere ez dutela Kataluniak bezala jokatu ere badiozu.**

Bai. Quebecen eta Eskozian autodeterminazioari eduki zehatz bat eman diote, esanez autodeterminazioa nahi dutela beraien eskubideak hobeto bermatzeko, gizarte politika sendoagoa edukitzeko... Kataluniako oso prozesu zabala da: gizartearena. Baina uste dut eskubide gisa zein eduki izango duen azpimarratu behar dutela. Askatasuna lortzeko bai, baina zertarako? Hori kitatzeko, ahalegin bat behar da.

**Autodeterminazio eskubidea aurrera eramateko, bi alderdien arteko prozesua defendatzen duzu. Zergatik?**

Lehen aukera gisa hori azpimarratzen dut. Euskal Herriari begira, hor daude eskubide historikoak, joera juridiko eta politiko oso bideragarriak hori bermatzeko. Estatuak akordio bat lortzen ez bada, ordea, bilatu beharko litza-teke beste era bateko akordio bat. Beste estatu batzuekin edo nazioartean. Lehen pauso gisa, akordioa, eta, ondoren, beste norabide bat.